

Inmigrazioa

ETBren albistegietan

JONE DORRONSORO IRAETA
EHUko Migrazio Teknikari Gradu-ondoa
2004ko Ekaina

Etorkin eta inmigrazioari buruzko informazioa ETBren albistegietan

Euskal Telebistaren euskarazko zein gaztelaniazko albistegiek inmigrazioari buruz emandako informazioa aztertu dut lan honetan.

Euskal hiritargoak inmigrazioaz duen informazio gehiena, eta ondorioz fenomeno honi buruz osatzen duen irudia, hedabideen bitartez jasotzen du. Hedabideen kontsumoan telebista da nagusia, eta honen barruan albistegiak informazio iturri garrantzitsuen. Honela bada, telebistako albistegiak aztertzea izan dut helburu eta hauen artetik ETBrenak. Aurtengo lehen hiruhilabeteko ETB 1 eta ETB 2 kateetako albistegiak inmigrazioaz eraiki duten diskurtsoa aztertzeke saioa da hau.

Aurtengo lehen hiruhilabetekoa ikertzean ETBk gai honen inguruan ia oraintxe bertan duen diskurtsoa ezagutzeko aukera dugu. Azterketa hau egoki kokatzeko, ordea, ezinbestekoa da hiruhilabeteko honetan jazotako informazio garrantzitsuena gogoratzea: elurteek eta hauen ondorioek harrapatu zuten informazioaren arreta urte hasieran, ia hamar egunetako albistegien albiste izarra bihurtuz; data hauetako gertakari garrantzitsuena martxoaren 11n Madrilen izandako atentatu hilgarria izan zen, telebistetako albistegiak goitik behera baldintzatu zituena; eta azkenik, kontuan hartu behar dugu hiruhilabeteko honetan hauteskundeak izan zirela, hauteskunde kanpaina bitartean izaten den propaganda politikoarekin albistegien zati handi bat bereganatuz eta informazioaren zentroa bihurtuz.

Ikerketaren antolaketa aurkibide gisa:

Sarrera

Oinarri teorikoa 4,5,6

Inmigrazioa, diskurtsoa , irudia

Hipotesi edo ikergaldera 6,7

Metodologia 7,8,9

Unibertsoa eta lagina

Diskurtsoaren azterketarako ikuspegiak

Emaitzak 10,11

Maiztasuna

Beste gaiekin alderatuz

Migrazio albisteen iraupena

Gaiak 11,12

Albisteen gai nagusiak

Bertako edo hemendik kanpoko informazioa

Testuingurua 13, 14, 15

Migrazioak titularretan

Zenbatgarren notizia

Informazio iturria 16, 17

Protagonistak 17

Tonua 18

Hizkuntza /Lengoaia 18

Gaizkilearen jatorri atzerritarra

Etorkinari pertsona dela aitortu gu eta besteen arteko mugak ezabatuz

Etorkinak edo trafikatzailleak, zein dira albistearen protagonista?

Itaunketak etorkin iritsi berriei / itaunketak trafikatzaillei

Titularraren mesedetan gaia gehiegi soildu

Ondo egindakoaren adibide

Boto eskubidea, integrazio osorako bidea

Ondorioak 24

Azken oharrak 25

Eranskina 26

Bibliografia 27

Sarrera

Teun Van Dijk ikertzaileak dioenez, daukagun ezagutza soziopolitikoaren eta munduari buruzko iritziaren zatirik handiena hedabideen bitartez ikusi eta irakurtzen ditugun dozenaka erreportaje eta informazioei zor diegu (Van Dijk 1990:139). Euskal Telebistaren audientzia datuak diotenez 2003. urtean¹ albistegien ordutegian telebista ikusten duten EAeko % 28,6 hiritarrek ETBko albistegiak aukeratzen ditu. Albistegien ordutegi honetan bertan, audientzia pilatua 392.000 pertsonakoa izan da, hau da, 392.000 ikus-entzulek ikusi dute albistegia uneren batean. Nahiz eta Euskal Telebista ez izan agian pertsona hauen informazio iturri bakarra, albistegi hauetatik ere jasoko zuten inmigrazioaren fenomenoaren irudi jakin bat, ETBko albistegiek eraikitako diskurtsoak emandako irudia.

Tamalez, hedabideek inmigrazioaz darabilten kontzeptua, hiritar gehienek bezalaxe, okerra izaten da, inmigrante edo etorkintzat hartzen baita herri pobreako eta ekonomikoki garapen urriagoa izan duen herri batetik gurera etorri den pertsona ustez "*behartsu, ezjakin eta gizagaixoa.*" Honela, ez da etorkina kontsideratuko Ameriketako EEBBetatik etorritakoa, ezta Europar jatorria duen aberatsa ere. Hedabideek, arrazoi asko tarteko (eta segur aski intentzio landurik gabe gehienetan, hau da, oharkabean, estereotipo eta arketipo horien baldintzapenez konturatu gabe) kontzeptu oker hau berriro eta berretsi egiten dute aldiro, lan diskriminatzailea eginez.

Azken urteetan gurean inmigratioak egin duen gorakadak gai hau albistegietan maizago agertzea eragin du; honekin batera, etorkinen aldeko gizarte eragileen eta erakunde batzuen ekimenez kontzientziazte lana egin izan da kazetarien artean eta honek bere eragin positiboa izan du. Alabaina, gizartean irudi okerra dugun bezala, hedabideek ere inmigratio fenomenoaren errealitatearen irudi okerra ematen jarraitzen dute, eta gure (gu, bertakoak eta ustez onenak) eta besteen (besteak, kanpotik datozen desberdinak) arteko diferentzia sakontzen. Maiz, diskurtso desegoki hau oharkabean jorratzen dela sinisten dut, aurreiritziak eta uste okerrak betidanik barneratuak ditugulako, eta ez gara jabetzen ondorioez; hain zuzen ere honegatik da garrantzitsua diskurtsoaren egokieraz edo desegokieraz jabetzea.

¹ 2003. urtean telebistetako eguneroko albistegirik ikusienak izan dira ETBkoak EAEn, eta aurtengo datuek diotenez ildo beretik jarraitzen du. Datuok, ETBk berak emanak dira.

Oinarri teorikoa

Has gaitezen zenbait kontzeptu azalduz:

Inmigrazioa

Goian azaldu duguna hiritar arruntok (eta hedabideek) barneratuta dugun inmigrazioaren azalpena da, aurreiritziz josia eta beraz okerra. Hemen azalpen zientifikoari jarriko diogu arreta migrazioaren definizioarekin hasiz: “Migrazioa, bizileku aldaketa egonkorra da, betiere aldaketa honek toki bateko aktibitate oro eten eta bizileku berrian guztia berrantolatu beharra dakarrenean. Migrazio prozesua *emigrazioarekin* hasten da, *emigranteak* izanik lurralde bat denbora epe luze baterako edo behin betirako utzi eta alde egiten dutenak, eta *inmigrazioa* da kanpoko biztanle baten edo kopuru baten asentamendua komunitate jakin batean. Iristen den pertsona edo taldea *etorkinak* edo *inmigranteak* dira (Blanco 2000:17,18). Azalpen honen arabera, pertsonaren jatorriak ez du definitzen etorkina, ezta bere egoera ekonomikoak edo arrazak ere.

Inmigratori buruzko diskurtsoa aztertzeko ez dut inmigrazioaren gaineko informazioa bakarrik aztertuko, migrazioaren prozesuaren edozein unez diharduen informazio oro baizik, izan ere, uste baitut guztiak duela eragina fenomenoaz dugun irudiaren moldaketan. Honela bada, migrazioaren fenomeno osoa bilatuko dut albisteen aukeran eta miaketan.

Diskurtsoa

“Diskurtsoa komunikazio gertakizun zehatz eta konplexua da, gizarte aktore batzuk behar dituen, hiztun edo idazle roletan, edota entzule edo irakurle roletan, baina baita ikusle edo kanpo-entzule roletan ere; gizarte aktore hauek komunikazio ekintza batean parte hartzen dute egoera zehatz (espazioa, denbora) batean eta testuinguru jakin baten baitan” (Van Dijk 1999:246). Diskurtsoaren eraikuntzaren konplexutasuna agerian uzten du Teun Van Dijk ikerlariaren definizio honek, ikus-entzunezko hedabidearen kasuan azkeneraino doan konplexutasuna. Lorenzo Vilchesek zera dio telebistaren diskurtsoaz: “telebista, diskurtso sortzaile den heinean, besteen hitza eta irudiaz jabetzen da, erabilitako bigarren eskuko hitz eta irudiaz, zerbait aplikatzen dio eta beste zerbait esaten amaitzen du” (Vilches, L 1989:24). Beraz diskurtso honen konplexutasunari zentzua moldatzeko ahalmen izugarria aitortzen dio.

Telebistak eraikitzen duen gai jakin honen diskurtsoan, aktore askok hartzen dute parte: kazetariak, aurkezleak, irudiak hartzen dituen kamerak, ondorengo bideo editaia egingo duenak, hainbat teknikaririk, eta ikus-entzuleak, eta informazioa sortu duten aktoreak, gertakizunaren testuinguru edo une zehatzak, berau eragin ahal izan dutenak... Guztiaren konbinaketaren emaitza izango da diskurtsoa. Bistan denez, ikus-entzunezkoaren diskurtsoaren ikerketa konplexuagoa da (diskurtsoa bera bezala) idatzizko hedabideen diskurtsoarena baino, eta era berean, diskurtso honi atzeman nahi zaion zentzua eta honen ondorioa ikus-entzulearengan indartsuagoa.

Azterketa honetan baliagarria izango zaigu Van Dijk ikerlariaren arabera inmigratioari buruzko diskurtsoak osatzean erabiltzen diren lau estrategiak (Van Dijk 1999:333):

- Guri buruzko informazio positiboa adierazi eta indartzea.
- Besteei buruzko informazio negatiboa adierazi eta indartzea.
- Besteei buruzko informazio positiboa ezabatu edo indargetzea.
- Guri buruzko informazio negatiboa ezabatu edo indargetzea.

Era berean Bañón Hernándezek egiten duen diskurtsoaren sailkapenean² ere erreparatuko dugu: diskurtso erreibindikatzaila, izango da mintzo dena marjinatua izanik jarrera ez baztertzailea duenean, konpromisozkoa mintzo dena ez denean marjinatua eta gainera ez duenean jarrera baztertzailea, autodiskriminatzailea marjinatutakoak jarrera baztertzailea duenean, eta azkenik, diskriminatzailea marjinatua ez denak jarrera baztertzailea duenean.

Euskal Telebistan migrazioen gaiak irizpide sorta³ helarazi zitzaizkien kazetariak eta esandakoari jarraitzeko gomendatu 1999ko urrian. Hortik aurrera, kazetarien esku dago gai honi buruzko informazioa taxutzea, zein informazio iturrietara jo, albisteari zein ikuspegietatik heldu erabakitzea... Baina gaiaren lanketaren aurreko erabakiaren unean ere zeresana dauka kazetariak, izan ere hainbat gai aukeratzea ere kazetarien ekimen edo proposamenen ondorioa izaten da ETBn. Dena den, argi dago kazetariak proposatu ondoren arduradunak ontzat eman behar duela ideia eta beraz, azken finean, ETBko albistegiek egindako aukeraz ariko gara.

² Bañón Hernández A.M. (1996: 29) Ia 40 orrialdeetan zehar garatzen du diskurtsoen teoria arrazakeriarekin zerikusia duten berriak adibidetzat jarritz.

³ Gomendio sorta honen laburpena eranskin gisa sartuta dago lanaren amaieran.

Hipotesi edo ikergalderak

Ez dugu hipotesi jakin baten gainean lan egingo; aldiz, iker-galderak formulatuko ditugu eta hauei erantzuten saiatu. Beraz, ondoko galderok erakutsiko digute ikerketaren norabidea:

1. ETBko ikus-entzuleen hiri eta herrietan ematen den inmigrazioaren fenomenoari buruzko egiazko irudia islatzen al dute ETBko albistegiek?
2. Zein dira migrazioei buruzko informazioetan protagonistak, nork hornitzen dute irudi eta ahotsez albistea?
3. Euskal Telebistako albistegietako sailak berak bere kazetarien artean banatutako irizpideak zenbateraino betetzen dira?
4. *Gu eta besteen* arteko etena ezabatzeko ahaleginik egiten al da albistegietan, edo aldiz, eten hori azpimarratu edo sakondu egiten du ETBko albistegien diskurtsoak?
5. Azkenik, Wilson eta Gutierrezen ikerketen arabera inmigrazio gaien kazeta tratamenduaren zein sasoiatan legoke ETB?

Ikerlari hauen arabera hedabideek gaiari ematen dioten trataeran fase historikoak bereiz daitezke: hasieran *bazterketa* ematen da, etorkin kopurua handitzen da, eta hauen ekarpen ekonomikoa nabarmena da, baina hala ere hedabideetan ez dira agertzen. Bigarrena *mehatxu fasea* litzateke, zeinetan gutxiengo etnikoak agertzen diren hedabideetan, baina mehatxu gisa tratatuak eta aldiz bertako biztanleriaren ontasuna azpimarratuz batera. Hirugarren *gatazka sozialaren* fasean, gehiengoak talde gutxituari beldurrez begiratzen dio eta *gu eta besteen* arteko dialektikaren jarraipena egiten dute hedabideek. Gatazka ondoko fasea dator hurrengo, hedabideek integratzen ezinbesteko biderako lana egiten dute irudi ezkorren aurka eginez eta jokabide aldaketa bultzatuz. Azkenik egoera ideala letorke, non pertsona guztiak erabateko berdintasunean jasoko lituzketen hedabideek. Honela bada, hauetako zein fasetan koka ditzakegu ETBko albistegiak?

Metodologia

Unibertsoa eta lagina

Ikerketa honetan erabilitako unibertsoa ETBko albistegiek osatzen dutena da, 2004ko lehen hiruhilabetekoan ipiniz denbora muga. ETBk bi kate ditu, ETB 1 euskarazkoa eta ETB 2 gaztelaniazkoa. Kate bakoitzean bi albistegi nagusi

ematen dira, eguerdian bat eta arratsean bestea. Eguerdiko biak, arratseko biak bezalaxe, oso antzekoak dira beren artean: hizkuntza aldatzeaz gain (euskara eta gaztelania), kazetariak platotik albisteei egiten dizkieten sarrerak dira ezberdinak, albisteen ordena ere alda daiteke zertxobait, baina gainerakoan ia berdina izaten dira, kazetari berberak lantzen baitituzte berriak euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak prestatuz. Aldiz, eguerdiko albistegien eta arratsekoen artean badago aldaketarik informazioa bera berritzen baita tarteko ordu horietan.

Arestian azaldutako guztia kontuan izanik albistegiak aztertzerakoan egunero bi albistegi miatu ditut, eguerdiko euskarazko Gaur Egun eta arratseko gaztelaniazko Teleberri albistegiak. Era honetan eduki osoa hartzeaz gain bi kateetako diskurtsoen azterketa egin ahal izan dut. Ikerketarako laginak hautatzeko, zientifikoki ongi frogatua dagoen aste konposatua erabili dut. Ahalik eta fidagarritasunik handiena bermatzearen eta diskurtsoaren azterketarako nahikoa albiste izatearren, bi aste konposatu erabili ditut. Bi aste hauek era aleatorioan hartu dira honela egokitu direlarik: lehena 2004ko urtarrilaren bederatzian hasiz, eta bigarrena, otsailaren 12an hasiz.

Edukien unibertsoa migrazioaren fenomenoari buruzko berriak osatzen dute. Migrazioaren gaia esplizituki aipatu edo ez, albistearen baitan nabarmenago edo ezkutuago baina beti ere bistan dagoen informazio oro zenbatzen dut, berdin du albistea nazioarteko gaia izan, ekonomiakoa edo beste edozein informazio esparrukoa. Jasotako bi albistetan gertatzen da informazioak ez egitea migrazio fenomenoaren aipamen zuzenik, baina hala ere jaso egin ditut irudietan nabarmena delako etorkinen presentzia, eta ondorioz, albistea inmigratio gaiarekin batu baitezake ikusleak. Hirugarren informazio batek ere ez du migrazio fenomenoaz informatzen baina informatzailea etorkina izanik jasotzea garrantzitsua iruditu zait.

Argitu azkenik, albistegi guztietan kirola bitartekoa aztertu dugula, atal hau edo atal honetatik aurrera zegoena⁴ utziz, ohartu ondoren ez zela inoiz migrazio gairik jasotzen albistegien azken atal horretan.

Diskurtsoaren azterketarako ikuspegiak

Inmigratioaren diskurtsoaren ikerketarako ikuspegiak asko izan daitezke baina ondoko hauetara mugatuko gara:

⁴ Kirolaren atalaren aurreko azken berria beti burtsa izaten da eta ondoren gehienetan ezer ere ez, edo behin edo behin ingurumen edo kultura gairen bat.

- **Maiztasuna**
Maiztasunari arreta jarriko diogu, aztertuz ea gaia zenbat alditan lantzen duten ETBko albistegiek, ahal den heinean beste medioek egiten dutenarekin alderatuz.
- **Gaiak**
ETBko albistegietan migrazioari buruzko informazioa lantzean zein gai jorratzen diren aztertuko da, zein agertzen diren maiztasun handienez, edo zein ez diren aipatzen.
- **Testuingurua.**
Aztertuko da zein unetan mintzatzen den migrazioaz, beste zein berrirekin batera kokatzen den albistegiaren barruan migrazioari buruzko informazioa.
- **Informazio iturriak.**
Aztertuko da zein diren ohiko informazio iturriak, etorkinak informazio iturri izaten ote diren eta zein maiztasunez.
- **Protagonistak**
Iruditan ikusten direnak eta ahotsa jartzen zaien norbanako edo taldeak nor diren aztertuko da eta zer nolako tratamendua ematen zaien.
- **Tonua**
Inmigrazioari buruzko informazio eta berriak zein tonutan jorratzen diren aztertzen saiatuko gara: humanitarioa, konpromisozkoa, diskriminatzailea edo neutroa.
- **Lengoaia / hizkuntza**
Hizkuntzaren erabilera funtsezkoa da diskurtsoaren osaketan: kalifikazioak, aditzak, esaten ez direnak, esaldien ordenatzea, eta abar luzeak era bateko edo besteko diskurtsoa antolatuko du.

Emaitzak

Maiztasuna

Ikerketa hau burutzeko bi aste konposatu osatu direnez eta eguneroko bi albistegi hartu, guztira 28 miatu dira. Hauetatik 13 albistegitan ez da aurkitu

migrazioekin zerikusirik duen gai bakar bat ere, beste guztietan gutxienez aipamen bat bazen eta 5 albistegietan aipamen bat baino gehiago sartzen ziren.

Gaiaren presentzia ETBko albistegietan			
	Gaur Egun	Teleberri	ETB
Aztertutako albistegi kopurua	14	14	28
Migrazio gaia lantzen duen albistegi kopurua	7	8	15
Migrazio gaia lantzen duen albiste kopurua	11	9	20*

Iturria: ikerketa honen egileak prestatua.

*Lau bider errepikatzen dira albisteak Gaur Egunen lehenengo eta ondoren Teleberrin. Hori kontuan harturik, 17 albiste edo informazio ezberdin agertzen dira guztira aztertutako epealdian.

Lau egunetan gertatzen da migrazio gai bakar bat ere ez jorratzea eguerdiko edo arratseko albistegietan, hau da, 14 egunetatik 10etan bada migrazioarekin zerikusirik duen gairik ETBko albistegietan. Bataz beste, hiru egun bakoitzeko bitan ageri da migrazioaren inguruko gairen bat ETBko albistegietan. Albisteen kopurua ia 0,8koa da eguerdiko albistegietan, eta 0,65ekoa arratsekoetan.

Beste gaiekin alderatuz

Ondoko taulan informazio esparru bakoitzak ETBko albistegietan betetzen duen lekua erakusten da, horretarako albiste kopurua neurtuz. Kontuan hartu behar dugu esparru gehiegi ez jartzearen Gizartea taldean sartu direla hezkuntza, osasuna, ingurumena, gertakariak, zientzia, eta abar. Migrazio gaietan informazio esparru guztietako albisteak jaso dira (aurrerago zehazten dira albiste guztiak) berdin nazioartekoak, zein gizarte sailekoak edo politikakoak eta ekonomiakoak.

Albisteen maiztasuna gaien arabera				
Nazioartea	Ekonomia	Gizartea	Politika	Migrazioak
77	78	210	115	21
15,4 %	15,6 %	42 %	23 %	4 %

Iturria: ikerketa honen egileak prestatua.

Migrazio albisteen iraupena

Migrazio gaia jorratzen duten berrien iraupen batz bestekoa ia bi minutukoa da, zehazki 116 segundukoa. Espainiako telebistetan egindako azterketa batek⁵ dioenez, migrazio gaii buruzko telebistako informazioen batz besteko iraupena 135 segundukoa zen joan den urteko hiruhilabeteko berean, hau da, ETBkoena baino zertxobait luzexeagoa.

Gaia

Ondoko koadroan, aztertutako albiste guztiak telebistan emandako orden berean zerrendatzen dira, eskuineko bi zutabeetan berria zein albistegietan eman den zehaztuz. Ikusten denez 21 informazio dira, horietatik lau errepikatu egiten direnak.

Aurkitu eta aztertutako albisteak	Gaur egun	Teleberri
Bushek etorkinak legeztatzeko asmoaz etorkinen iritzia	X	X
Extranjeria legearen aurkako manifestazioa		X
Beloaren auzia Parisen		X
Kanariar irletan agertutako Cronaky itsasontzia	X	
Mexiko EEBBko muga	X	X
Cronaky itsasontziaz gehiago		X
Gernikan bizi den etorkinarekin Iran ezagutzen	X	
Frantziako irakasleen iritzia beloaren auziaz	X	
Hilketa baten ustezko ekintzaileen epaiketa	X	

⁵ "Inmigración y racismo - Análisis de radio, televisión y prensa española." izenez, Fundación Iberoamérica Europa. fundazioak urtero egiten dituen ikerketatik 2003ko urtarrila - martxoa hiruhilabeteko datuak baliatu ditugu.

Migrazio saldo positiboa EAEn	X	X
Marokoko lurrikararen ondorioak etorkinen hitzetan		X
Genero biolentziak hildako emakumearen hiletan emakume etorkinak*		X
Boto eskubidea etorkinei Belgikan	X	X
Madrileko tren atentatua*	X	
Urduñako zentroa ixteko asmoaz	X	
Arartekoaren txostenean haur etorkinen matrikulazioaz gomendia	X	
Etorkinen aurkako sarekada Bilbon		X

Iturria: ikerketa honen egileak prestatua.

* Bi albiste hauek ez diote migrazioari aipamen zuzenik egiten baina etorkinak agertzen dira irudietan.

Albisteen gai nagusiak

Albisteen gai nagusiekin batera, migrazioen fenomeno konplexuaren baitan biltzen diren beste hainbat gai ere jorratu dira, eta bigarren gai bezala biltzen ditut ondoko koadroan.

Lehen gai nagusia	Bigarren gaiak
<ul style="list-style-type: none"> • Beloa. Islam-fobia • Boto eskubidea etorkinei integrazioarako bide • Extranjeria legea • Gizartea • Inmigranteen trafikoa • Inmigrazio politika • Inmigrazioa eta hezkuntza • Krimenak • Migrazio datuak • Mugak • Polizia kontrola • Terrorismoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Etorkinen bizi-baldintza eskasak • Etorkinen diru remesak • Etorkinen erabilpena politikarien aldetik. Hauteskundeetarako baza • Inmigratzeko arrazoiak • Inmigrazio proiektu osoa • Jatorrizko herrietara itzularaztea • Paperak = kontrola

Iturria: ikerketa honen egileak prestatua.

Aipatzekoa da 17 albiste izanik, eta kontuan hartuta albiste batzuetan gaiak errepikatu egiten direla, gai ezberdin ugari lantzen direla osotara, esan beharra dagoen arren albiste pare batean biltzen dela batez ere gai aniztasuna.

Bertako edo hemendik kanpoko informazioa

17 albisteetatik 8 dira bertan jazotako gertakizunak, ikus-entzulea bizi den kaleetan gertatuak, hiritarrak bere inguru hurbilean senti dezakeen informazioa. Horiekin batera daude atzerrian urruti kokatzen diren informazioak: EEBBetan, Mexikon eta Iranen.

Urruntasun honek, nahiz eta gaia oso era objektibo eta integratzailean landu, nekez hausten du distantzia eta ikus-entzuleak kanpoko fenomeno edo arazotzat har dezake, pentsatu ere egin gabe etxean bertan ere gertatzen den fenomenoaz ari denik. Gertakizunaren hurbiltasun edo urruntasunak eragin zuzena du informazioaren indarrean, eta ondorioz, migrazioaren fenomenoaz eman daitekeen irudia osatzeko eraginkortasunean.

Bestalde, arrazakeria edo xenofobia azalarazten da batez ere gertakizun jakinen bat bertaratzen denean, zuzenean nozitzen denean.


Testuingurua

Prentsa idatzian inmigrazioari lotutako gaiak orrialde batean edo bestean informazio jakin batez inguratuta edo ez agertzeak irudi bat edo bestea ematen duen era berean, telebistan ere testuinguruak badu eraginik. Tratu txarrak, lapurretak, hilketak eta antzeko berriak baldin badira egunkari batean etorkinen informazioaren ondoan agertzen direnak, irakurlearen garunean migrazioaren gaia gertakizun kaltegarritzat hartzen da ezinbestean, izan ere gertakizun kaltegarri guztien artean jasotzen delako.

Telebistan ere kontuan hartzekoa da zein berrirekin batera sailkatzen den migrazioei buruzko gaia, eta batik bat aurreko albisteak du garrantzia. Izan ere, aurreko gaiak girotzen du ikus-entzulea, jarrera jakin batean jartzen du ondoren datorrena era batean edo bestean hartzeko.

Sailkapen hau egiteko lehenago gizartea taldean jasota genituen albiste batzuekin krimenak izeneko azpitalde bat osatu dut, bertan sartuz gaizkileekin zerikusia dutenak (hilketak, lapurreta, bortxaketak, atxilotzeak...), droga trafikoen ingurukoak eta genero biolentziaren ingurukoak.

Migrazio gaia agertzen zen albistegi guztietan baten izan ezik, krimenak deitu dugun talde horretako albisteak baldin bazeuden migrazio berriarekin batera



Iturria: ikerketa honen egileak prestatua.

sailkatzen ziren. Behin bakarrik gertatzen da tankera honetako berri bat ematea eta albistegian ez antolatzea migrazio berriaren ondoan, zehazki Hendaian gertatutako bi donostiarren aurkako genero biolentziaren ondoriozko hilketa bikoitza. Gertakari honi oihartzun handia eman zitzaion eta albistegian garrantzia gehiago hartu zuen hasierako albisteen artean emanez.

Migrazioak titularretan

Presentzia txikia dute migrazio berriek titularretan, zehazki, 17 albiste ezberdinetatik bi aipatzen dira albistegiaren sarrerako berri nagusien artean: EAEn bigarren urtez migrazio saldo positiboa izan zela (bi albistegietako titularretan) eta Bilboko kaleetan etorkinen aurka burututako sarekada. Lehen albistea berri positibotzat jo dezakegu, etorkin kopurua handitzearen balorazio positiboa egiten baita bertan, eta aldiz bigarren albistek etorkinen irudi ezkorra ematen digu.


Titularrek informazioaren garrantzizkoena aurreratzearekin batera ikus-entzulearen arreta bereganatu eta telebistari so eusteko funtzioa ere betetzea komenigarri izaten da. Alde honetatik etorkinen gaia ez da segur aski salgarriena, eta izatekotan ere irudi ezkorra emanez izango denez kasurik gehienetan (itsasoan hildakoen gorpuak, esate baterako) titularretan larregi ez aipatzea ez dut uste kezagarria denik.

Bestalde, ohar gaitzen titularretara eramaten den informazioetako batek gure buruaz irudi positiboa emateko balio duela batik bat. Izan ere, Zenarruzabeitia lehendakari-ordea mintzo da albiste honetan EAEn bigarren urtez migrazio saldo positiboa izan dela eta "balorazio positiboa" eginez. Zehazki hitz hauek erabiltzen ditu, ondoren guregana etortzen direnean

nolabait gure bertuteei zor zaiela esateko. Beraz, titularretara ekartzen dena ez da etorkinei buruzko berri ona, guri buruzko berri ona baizik. Eta aldiz, beste berriak, Bilbon poliziak egindako sarekadarena, inmigrazioa testuinguru txar batean jartzen du, gaizkileak balira bezala poliziak atxilotuta.

Zenbatgarren notizia

Telebistako albistegiari arretaz, behar den kontzentrazioaz begira egoteko gaitasunak muga bat du. Albistegi laburra ordu erdikoa izaten da, eta batzuetan berrogeita hamar minutuko albistegi luzeak ere badira. Denbora luzeegia da ikus-entzuleak arreta maila berari eusteko denbora guztian. Hau honela, albistegiaren hasieran dauden berriak hobeto jasotzen ditugu.



Iturria: ikerketa honen egileak prestatua.


Koadroan ikusten denez, migrazioaren albisteak maizago kokatzen dira albistegiaren bigarren erdian hasieran baino, edo beste era batera esanda, gehienetan ikus-entzulearen arreta makaltzen hasia da migrazioaren inguruko albistea iristen denerako.

Informazio iturria

Zenbait albistetan ez dago argi informazio iturria zein den eta albiste gehienetan informazio iturri bat baino gehiago baliatzen dela dirudi⁶. Ondoko

⁶ Dirudi diot, kazetariak ez dutelako esplizituki adierazten zein izan den informazio iturria eta ez da inon jasoa geratzen.

koadroan informazio iturri nagusia bakarrik jasotzen dugu. Kontuan har instituzioak aipatzean aginte erakunde guztiez ari garela, polizia edo ertzaintza barne sartuz.



Iturria: ikerketa honen egileak prestatua.

Aldeko elkarte eta etorkinen multzoak batuz ez da instituzioen informazio iturriaren kopurura iristen. Euskal Herrian editatzen diren egunkariak inmigrazioa, arrazakeria eta xenofobiaz 2002. urtean zehar argitaratutakoaz Mugak ikertaldeak egindako azterketak⁷ dioenez, gai hauen informazio iturri nagusiak instituzioak izan ziren %32,6 proportzioan. Beraz ETB egunkarien media bertsuan legoke. Aldiz, egunkarien gaineko ikerketa berak dioenez etorkinak %10,3ko proportzioan ziren informazio iturri; ETBn, % 18 alditan dira etorkinak informazio iturri nagusi.

Protagonistak

Protagonistak aipatzean albisteetako irudietan ikusten diren pertsonak edota albisteetan kazetariaren ahotsaz gain entzuten diren ahotsak biltzen ditugu.

⁷ MUGAK. SOS Arrazakeriaren Arrazakeria eta xenofobia ikerketa eta dokumentazio zentroak hiruhilabetero ikerketa eta ergitalpenak egiten ditu prentsa idatziaren lana aztertuz eta baita urteroko bildumak ere argitaratuz, gai jakin batzuk bereziki aztertu eta sakonduz gainera. Euskal Herriko telebisten antzeko ikerketarik ezean, prentsa idatziak baliaitu izan dituen informazio iturriekiko alderaketa iruditu zait egokiena.



Iturria: ikerketa honen egileak prestatua.

Ikusten denez irudietan eta zuzeneko adierazpenetan etorkinak eta etorkin ez direnak paretsu agertzen dira. Kontuan hartzekoa da informazio iturri nagusia etorkinak ez izan arren albisteen irudietan protagonista direla endotaldeko⁸ ordezkarien pare. Ohartu, ordea, bitxikeriaz: etorkinei buruzko informazioan etorkin ez direnak etorkinak bezain beste agertzen dira irudietan.

Agerpen kopuru berdinetan badago alde kualitatibo aipagarri bat. Izan ere, etorkinak maizago agertzen dira era anonimoan izen abizenekin identifikatuta baino, eta aldiz etorkin ez direnak beti agertzen dira izen deiturez identifikatuta. Izen abizenekin agertzeak duintasuna ematen du, pertsona izaera aitortzen zaio hitz egiten duenari; aldiz, pertsona nor den esaten ez denean etorkin izaera bakarrik aitortzen zaio, ikus-entzulearekiko ezberdintasuna azpimarratzen da, gu eta besteen arteko aldea handitu.

Dena den, arestian azaldutakoa zuzena izanik ere ulertu nahi dugu era anonimoan hitza ematen zaien etorkin horiek horrela egiten dutela bestela ausartzen ez direlako, hau da, agiririk gabe egoera irregularrean egonik nahiago dutelako izenik ez aipatzea.

Tonua

Lau tonutan sailkatu ditut albisteak: humanitarioa, konpromisozkoa, diskriminatzailea eta neutroa. Humanitarioan sartzen dira etorkinen egoeraren

⁸ Bai Bañón Hernándezek eta baita Van Dijkék ere endotaldea eta exotaldearen arteko bereizketa egiten dute etorkinen edo inmigranteen taldea eta harrera gizartearen taldea aipatzerakoan.

edo bizi baldintzen larritasuna azpimarratzen duten diskurtsoek, gertatutakoaren kontakizunarekin batera injustizia egoeraren salaketa baino etorkinen errukia eragiten dutenak; bigarren taldean sartzen ditut kazetariak informazioaren konpromisozko lanketa egiten duenean, hau da, etorkinen alde negatiboak nabarmendu beharrean alderdi positiboak indartuz diskurtso integratzaile bat eraikitzen duenean fenomenoan sakonduz azaleko topikoetan geratu gabe; diskriminatzailea izango da gure ezaugarri onak edo besteen txarrak nabarmentzen dituen, bien arteko aldea sakontzen duen diskurtsoa; eta azkenik tonu jakinik antzematen ez zaien albisteak geratuko dira.

Tonu humanitarioa albiste batean nagusitu egiten da, Kanariar irletara eramana izan zen Conakry pateratzarraren informazioetako batean, hain zuzen, eta beste albiste batzuetan ere agertzen da tonu hau, nabarmenena ez izan arren. Lau albistetan konpromisozko diskurtso garbi eta nabarmena egiten da eta sei albiste dira maila handiago edo txikiagoan diskriminatzaileak. Beste sei albistek ez dute tonu jakinik.

Hizkuntza /Lengoaia

Honela kalifikatzen dira etorkinak albisteetan:

- atzerritarrak
- extranjeros indocumentados
- personas sin papeles
- inmigrantes sin papeles
- integrista, antisemita vehemente
- mano de obra barata
- los recién llegados
- ciudadanos vascos
- hombres y mujeres que vienen a trabajar

Honelako gauzak egiten dituzte albisten arabera:

- no hablar por miedo
- vivir en la clandestinidad y la exclusión
- bizi-baldintza oso txarretan bizi
- lana gogor egin
- beldurrez bizi
- bizitza jokoan jarri
- beloa derrigortuta jantzi
- inmigración ilegal
- diru kopuru garrantzitsuak igorri jatorrizko herrira

Honelako salaketa edo aldarrikapenen berri ematen da albistegietan:

- vulneración de derechos humanos
- papeles para todos
- ley de extranjería criminaliza y condena a la clandestinidad
- comportamientos fundamentalistas
- clima de enfrentamiento entre comunidades
- islam-fobia
- aprender la tolerancia, aceptar a los demás
- integrazio osoa
- multiculturalidad igual a riqueza

Ohar gaitzen ateratako kalifikazio, ekintza edo mezu gehienak ezkorrek direla: merke lan egiteko gertu daudela esaten zaigu, baina ez langile onak direnik edo prestakuntza ona dutenik; etxera dirua bidaltzen dutela esaten da, baina ez bertan ere kotizatzen eta hazkundera laguntzen dutenik; bizitza jokoan jarriz ilegalki sartzen direla esaten da, baina ez gehienak legalki behar den dirua ekarriz sartzen direnik; ...

Aipamen orokorrez gain azterketa sakonago eta geldiagoa egitea merezi duten albiste eta diskurtsoak ere badira, batzuk ekarpen positiboak, besteak berriz erabat negatiboak:

Gaizkilearen jatorri atzerritarra

Inmigrazioarekin zerikusirik ez zuen albiste batean, inongo premiarik gabe informazioari ez baitzion ezer gehitzen, ustez lapurreta eta hilketa batean parte hartzen zutenen atzerritar jatorriaren berri ematen zuen kazetariak. Informazio erantsi hau berriaren amaieran ematen zen, ordura arte kazetariak ekidin nahi izan balu bezala; baina behin eta berriz albistea berrikusi arren ez diot gaizkileen jatorriaren informazioa emateari inongo interes periodistikorik aurkitu.

Beraz, hedabideetan hain erraz egin izan den ohitura horren adibidea aurkitu dugu ETBko albistegietan ere: berez inmigrazioaren fenomenoarekin zerikusirik ez duen informazio erabat ezkorrean jatorri atzerritarraren datua sartu, honela inmigrazioa ekintza txar horrekin bat eginez eta ondorioz inmigrazioaren irudi erabat ezkorra zabalduz. Kasu bakarra aurkitu izanak kazetari baten aurreiritzien aurrean gauden susmoa pizten du, nahiz eta ez izan horregatik barkagarria.

Kazetariak erantzukizun sozial handia du. Esaten duen lekutik esanda (Telebistatik, eta ez edozein telebistatik, bertako kate publikotik baizik) kazetariak egin dezakeen edozein izendatze diskriminatzailek oihartzun eta eraginkortasun handia hartzen du⁹ gizartearen diskurtsoaren eta fenomenoari buruz gizarte honek osatzen duen irudian.

Etorkinari pertsona dela aitortu gu eta besteen arteko mugak ezabatuz

Kanariar irletara Cronaky izeneko itsasontzia iritsi zen Afrikatik, barruan etorkin talde handia zeramalarik. Albiste honi buruzko informazioa luze eman zuen ETBk bere bi kateetan.

Ehundik gora pertsona, egoera oso kaskarrean, zikin, gosetuta, nekatuta, triste, denak bata bestearen ondoan pilatuta, eta hori guztia nahikoa ez dela, gainera polizia eta bestelako uniformedunak dituzte inguruan, erabat herdoilduta eta zaharkituta ikusten den itsasontzian. Hauxe zen informazioak irauten zuen minutu eta hogeitasegundoko tartean ikusten zen irudia, irudi gogorra. Kazetariaren ahotsak bi erataria izendatu zituen, bai etorkin deituz, baina baita gizon-emakume deituz ere.

Irudi hauei begira, kazetariak gizon eta emakumeak zirela gogoraraztea garrantzitsua deritzot, nolabait irudien gordinak ukatzen zieten duintasuna aitortzen baitzitzairen ordura arte merkantzia bai-liran erabiliak izandako ehundik gora etorkinei.

Etorkinak edo trafikatzailleak, zein dira albistearen protagonista?

Cronaky itsasontziaren albiste berean ETB 1eko kazetariak berriari sarrera ematean etorkinez hitz egiten dute batik bat, hauen egoeraz, etorkizunaz... eta bigarren mailan geratzen da itsasontziaren kapitaina eta bere tripulazioa, trafikatzailleak eta arrazoi honengatik atxilotuak. Aldiz ETB 2ko albistegian albiste berberari sarrera ematean, trafikatzailleak bihurtzen dira lehen mailako berria eta etorkinak gertakizunaren biktima anonimoak dira.

ETB1eko albistegiaren eta ETB2ko albistegiaren artean sei orduko aldea dago, eta denbora tarte honek azal dezake maila batean ikuspuntu ezberdintasuna.

⁹ Aurreiritzi etniko sakonak dituen kazetariak, milioika ikus-entzulek gara dezaketen diskurtsoaren hasiera ematen duten "eskua" izan daitezke, karta-jokoaren simila erabiliz" (Teun A. Van Dijk, 1993:108)

Izan ere gertakizuna ezagutu berritan erreakzio humanitarioa gailendu egiten da; aldiz, denborak aurrera egin ahala giza erreakzio hori haserrean bihur daiteke eta ondorioz errudunak aurkitu nahian edo justizia egin nahian. Baina bietan ere emaitza bertsua gertatzen da, besteak dira beti erantzuleak, etorkin zein trafikatzaille, biak exotaldeko kide. Haiena da arazoa, ez guri dagokigun zerbaite.

Itaunketak etorkin iritsi berriei / itaunketak trafikatzaillei

Cronaky itsasontzian jarraitzen dugu. "Los inmigrantes sin papeles están siendo interrogados". Esaldi hauxe erabiltzen zuen kazetariak, gaizkile arruntetaz ariko balitz bezala. Kazetariak azaldu nahi zuena zera zen: pertsona iritsi berriok beren herrietara itzularaziko zituen poliziak eta hori egin ahal izateko bakoitzaren jatorria jakin beharra zuenez banan-banan itaundu behar zituen. Albiste berean trafikatzailleak ere itauntzen ari ziren informazioa ematen zen eta bi itaunketen berri batera ematen da ia bereizketarik egin gabe. Kazetariaren esateko era honek inmigrazioaren irudi txarra areagotu egiten du, telebistari begira dagoenaren garunean, oharkabean, etorkin=gaizkile ariketa itsasten du.

Titularraren mesedetan gaia gehiegi soildu

Kazetariak informazioa laburtu egin behar izaten du arrazoi desberdinak medio: espazioa (medio idatzitan) edo denbora (ikus-entzunezkoetan) izaten dira arrazoi nagusiak, halaber hizkuntza ulergarriagoa egin nahia edo hizkuntza deigarria lortu nahia ikus-entzulearen arreta eskuratzeko. Hiru arrazoiok berebiziko pisua dute titularra erabakitzeke orduan edo informazioari sarrera emateko unean. Honela, pentsa liteke gaiaren muinera garamatzen sarrera erakargarriago bat hobe delako kazeta ikuspegitik.

Inmigrazioaren fenomenoak duen konplexutasun handiak, ordea, zaila egiten du berriak labur eta era deigarrian ondo azaltzea, eta hala saiatzean ondorioa estereotipo eta aurreiritziak indartzea izan daiteke.

Honen adibide dugu Gaur Egun eta Teleberri albistegietan informazio berberari ematen zaion bi sarrera desberdinetan. Hain zuzen, otsailaren 2an, EEBB eta Mexikoren arteko migrazioari buruz emandako informazioa dugu aipagai. Euskarazko kateko bi kazetariak sarrera luze (eta zail samarra) ematen dioten artean, gaztelaniazko kateko kazetariak labur eta bizkor sarrarazten du

albistearen bideoa. Lehenengoan (ikus-entzulea aspertu badezakete ere, denok baitakigu zein arriskutsua den hori zappingaren aukera hor delarik) ikus-entzuleari fenomenoaz zerbait gehiago ikasteko aukera ematen zaio, bigarrenean ez zaio hainbeste ardua jartzen horri, eta "inmigración ilegal" eta "frontera" gaietara mugatzen du sarrera, nahiz eta ondoren datorren informazioak hori baino askoz ere gehiago sakondu.

Ondo egindakoaren adibide

Hain zuzen ere, arestian aipatutako Mexiko eta EEBBetako informazio honetan, Bertha Gaztelumendi kazetariak migrazioaren prozesuaren hainbat alderdi azaltzen ditu, etorkinaren eta emigrantearen ikuspegiak emanez, etorkinaren egitasmo osoaren berri eman eta, fenomenoaren arrazoi eta ondorioak ere aipatuz. Gaztelumendik landutako hau ez da ondo egindakoaren adibide bakarra, baina bai eredu egokia.

Boto eskubidea, integrazio osorako bidea

Belgikan atzerritarrek izango duten boto eskubidearen albisteari sarrera ezberdin ematen zaio platotik Gaur Egunen eta Teleberrin. Lehenengoan inmigrazioaren fenomenoari aipamenik ere egiten ez zaion artean, ETB 2ko aurkezleak albistea baliatzen du gogorarazteko ikus-entzuleari etorkinen integrazioa eginkizun dugula eta horretarako bidea ere badela boto eskubidea aitortu eta onartzea.

Ondorioak

Oro har, Euskal telebistaren albistegiek inmigrazioaren gaiaz duten diskurtsoan sumatzen da lan integratzailea burutzeko ahalegina, nahiz eta zer hobetu eta zer zaindu izan.

ETBk egunerokotasunak horretara behartu gabe ere jorratu izan du migrazioen gaia informazio positiboa landuz, eta beraz, ahalegin positiboa nabarmentzekoa da. Alabaina, albistegietan ahalegin hau egin denean urrutira jo da notizia bila eta honela, bertako etorkinak albiste negatiboetan ateratzen jarraitzeaz gain, gurean ia ematen ez den fenomenotzat hartzeko arriskua dugu.

Albisteen protagonista dira maiz etorkinak eta baita informazio iturri ere. Honetan kazetarien ahalegina aitortu beharra dago.

Aztertutako albistek ematen duten irudia ez da gure hiri eta herrietako kaleetan dagoen errealitatearen ispilu (hor galdegin liteke albistegietako gainerako albistek errealitatearen irudi egiazkoa ematen duten, eta erantzuna, segur aski, ezezkoa litzateke): ez da etorkina aberastasun ekarle bezala irudikatzen, gehienetan biktima moduan irudikatzen zaigu eta baita arazo eragile gisa ere.

Nahita edo oharkabean, baina jarraitzen da inmigrazioaren gaia krimenen inguruko gaiekin batera kokatzen, inmigrazioa bera ere maila berean jarritz. Honekin batera, albistegien erdialdetik aurrera kokatzen dira berriok, titularretan oso gutxi agertuz. Honek gaiari ematen zaion garrantziaren neurria eman dezake.

Informazioen tonua adierazgarria da oso. Lehen ikustaldi batean nahikoa neutroa edo etorkinen aldekoa izan daitekeela dirudien arren, Bañón Hernández eta Van Dijk ikerlarien proposamenei jarraituz albistea xehatzean ohartzen gara neutraltasun zirudiena diskriminazio dela uste baino maizago.

Wilson eta Gutierrezek aipatzen zituzten inmigrazioaren informazioaren faseen artean Euskal Telebista "gatazka ondoko fasean" sartuta dagoela esango nuke. Nahiz eta gatazka sozialaren sasoia oraindik erabat gauditua izan ez ematen baitira "gu" eta "besteen" arteko etena gogorarazi eta sakontzen diguten albisterik, badago zenbait diskurtso eraikitzerakoan irudi ezkorrak ezabatzeko ahalegin kontzientea.

Azkenik, ETBko albistegietako kazetarien artean banatutako gomendio sortari begiratzat ohartzen gara maila handi batean betetzen direla, nahiz eta batzuetan

huts egin. Gomendio edo arau hauetatik bat da aztertutako berriek erakutsi digutenez gutxien betetzen dena: albiste positiboak bilatu eta jorratzea.

Azken oharrak

Azterketa honen tamaina murrizak zenbait ohartarazpen egitera behartzen nau. Izan ere, ez dut uste albistegiek inmigratioari emandako tratamendua eta Euskal Telebistak inmigratioari ematen dioten tratamendua bat bera direnik. ETBk inmigratioaren fenomenoaz zabaltzen duen irudia ez da egunerokotasunak agindutako informazioaren haritik datorrena soilik. Lehiaketa, elkarrizketa, telesail edo bestelako saioetan, arduradunek nahita etorkinak sartzea erabakitzen dutenean, fenomeno honi buruz hedatzen den irudian modu jakin batean eragiten ari dira; eta azterketa honek ez du guzti honen jarraipenik egin.

Are gehiago, ez dira ETBko albiste saio guztiak aztertu, albistegiak bakarrik baizik. Beraz, litekeena da albistegiek adierazten dutena baino maiztasun handiago edo txikiagoz lantzea ETBko albiste saioek inmigratioaren gaia, eta halaber, gerta daiteke sakontasun handiagoz lantzea gaia, denbora gehiago eskainiz. Hau da, argi dut azterketa askoz ere xeheagoa egin daitekeela eta ondorioz emaitza zehatzagoak lortu, batez ere ETBri legozkiokeen emaitza zehatzagoak. Horretarako denbora eta baliabide handiagoak beharko lirakeke.

Alabaina, albistegiek darabilten inmigratioari buruzko diskurtsoaz egindako azterketaren emaitzak baliagarri direla deritzot, eta hurbil samarretik erakuts dezaketela zein den ETBko kazetariak eta hedabidearen arduradunek duten ikuspegia eta gaiaren gaineko kezka.

Amaitzeko azken ohar bat egin nahi nuke kazetari naizen aldetik. Uste dut errazegi leporatzen zaizkiola kazetariari era guztietako erantzukizunak arrazakeria eta xenofobiari dagokionean. Nork bere buruaren bertuteak ikusteko eta akatsak gordetzeko, eta besteari akatsak bakarrik aitortzeko joera ez da oraingoa: egun inmigratioa dugu, lehen ijitoak izan ditugu, judutarrak ere izan ziren, behartsuak eta emakumeak betidanik dira bertan,... Hedabideen aurretik da gizakia eta gizataldea baztertzailea. Alabaina, gaur egun hedabideek honelako jarreretan eragiteko ematen duten aukera baliatu egin behar da, eta beraz, kazetariak badute erantzukizunik. "Zuzeneko edo zeharkako gertakizun arrazisten erreproduzio akritikoa gaien negatiboki inplikatzeko era bat da" (Bañon 1996: 17). Nire uste apalean, Bañonen baieztapen hau sinetsiz jokatu beharko luke kazetariak.

Eranskina

Euskal Telebistako albistegietako kazetarien artean 1999ko urrian banatutako gomendio sortaren laburpena. "Manual de estilo periodístico" izenburua zuen gomendio sorta hau Inmigrazioaren Foroak helarazi zion ETBko albistegi sailari eta honek kazetarien artean banatu zuen. Hemen gomendio bakoitzaren sarrera bakarrik jaso dugu, bakoitzak ondoren zekarren azalpenik gabe.

1. Ez da aipatu behar zein den talde etnikoa, azalaren kolorea, jatorrizko herria, erlijioa edo kultura, ez bada ezinbestekoa albistearen ulermen osorako. gehiegizko sinplifikazioak. Biztanle atzerritar ez komunitarioak, bertakoak
2. Beharrezkoa da orokortasunak ekiditea, manikeismoak eta informazioaren bezain homogenotasun gutxi dute.
3. Ez dira indartu behar informazio ezkorrak eta sentsazionalistak. Alferrik gatazkak sortu eta hauek dramatizatzea ekidin behar da. Albiste baikorrak bilatu behar dira.
4. Informazio iturrietan neutraltasuna. Beharrezkoa da instituzioen bertsioak kontrastatzea. Gutxiengo etnikoenak indartu behar dira eta bereziki zaindu jatorrizko herrien informazioak. Zuzenketen argitaratzeak hedabideen kalitatearen mesederako dira.
5. Kazetarien erantzukizuna. Informazioaren kokapenaren garrantzia. Irudien erabilera egokia.
6. Kazetaritza militantea multikulturalidade aberasgarri baterantz. Informazio positiboen sustatzea.
7. Sexuaren araberako hizkuntza diskriminatzailek ez da erabili behar emakumeei dagokien lekua aitortzeko.

Bibliografia

- Bañón Hernandez, A.M. (2002): *Discurso e inmigración. Propuestas para un debate social*. Murcia, Universidad de Murcia, Servicio de publicaciones.
- Bañón Hernandez, A.M. (1996): *Racismo, discurso periodístico y didáctica de la lengua*. Almería, Universidad de Almería, Servicio de publicaciones.
- Blanco, C. (2000): *Las migraciones contemporáneas*. Madrid, Alianza Editorial
- Perceval, J.M. (1995): *Nacionalismos, xenofobia y racismo en la comunicación*. Barcelona, Paidós.
- Van Dijk, T.A. (1990): *La noticia como discurso*, Barcelona, Paidós.
- Van Dijk, T.A. (1993): *El racismo de la élite*. Barcelona, Archipelago nº 14.
- Van Dijk, T.A. (1997): *Racismo y análisis crítico de los medios*, Barcelona, Paidós.
- Vilches, L. (1989): *Manipulación de la información televisiva*, Barcelona, Paidós.
- Zabaleta Urkiola, I. (1997): *Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia*, Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea.